



IKASTOLAREN IKURRA

2025eko abendua

GABONAK LIBURUEKIN / NAVIDADES CON LIBROS

Estimadas familias,

Familia agurgarriak,

Ikastolak garrantzi berezia ematen dio irakurketari. Eta, interes hori, ez da mugatzen hurrek irakurtzen eta idazten ikastera. Izan ere, ikastolak garatzen duen **irakurketa-planaren barruan**, jarduera ezberdinak eramaten ditu aurrera irakurketaren zaletasuna sustatzeko, horietako bat **JUUL kanpainaren** ospakizuna delarik.

Hurrek irakurtzen dakitela edo oraindik ez dutela ikasi, familiek ere, irakurketa sustatzen ahal duzue. Adibidez, gertuen dituzuen liburutegietara seme-alabak eramanez eta bertan dituzten liburuak aztertzen eta aukeratzen laguntzen, beraiekin irakurtzen.

Halaber, irakurketarako horren egokia den Eguberriko garai honetan, liburua opari ezin hobea izan daitekeela kontuan hartzea interesgarria izan daiteke. Juul kanpainaren web-orrialdean www.juulkanpaina.eus, "**Irakurgidak**" atalean aurkitzen ahal dituzue bere kalitatearengatik gomendatutako haur eta gazteentzako ipuin- zein liburu-zerrenda. Era berean, ikastolan edo udal liburutegietan aholkua eska dezakezue.

Zuen seme-alaben hezkuntzaren garapenean lanean batera jarraitzeko asmotan, adeitasunez agurtzen zaituztegu,

Nuestra ikastola le da una importancia especial a la lectura. Ese interés, no se limita a que vuestros hijos/as aprendan a leer, sino que, durante el curso, dentro del plan de lectura que llevamos a cabo, ofrecemos distintas actividades para **fomentar el placer por la lectura que culminan con la campaña Juul.**

Tanto si los niños y niñas saben leer o todavía no han aprendido, las familias, podéis impulsarla. Por ejemplo, visitando con ellos/as la biblioteca más cercana y examinando y ayudándoles a elegir libros, leyendo con ellos...

Asimismo, nos gustaría aprovechar estas fechas navideñas tan propicias para la lectura para que tengáis en cuenta que **un libro es un regalo fantástico.** En la página web de la campaña JUUL www.juulkanpaina.eus, en el apartado "**Irakurgidak**" podéis encontrar recomendaciones de libros infantiles y juveniles en euskera. También podéis pedir consejo en la ikastola o biblioteca municipal.

Esperando poder seguir colaborando conjuntamente en el desarrollo de la educación de vuestros/as hijos e hijas, se despide atentamente,

Ikastolako zuzendaria / Director/a de la Ikastola